

Enpresa Kooperatiboen Kudeaketan Ikastaro Aurreratua ERKIDEREkin lankidetzan

2009/02/27

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak eta ERKIDEK – Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioak, “Enpresa Kooperatiboen Kudeaketan Ikastaro Aurreratua” ri hasiera eman diote.

Ikastaro honen helburua enpresa kooperatiboen kudeaketan trebakuntza hobetzea da. Parte-hartzaileak Enpresa Kooperatiben kudeaketaren kontzeptu, teknika eta tresnen garapenean trebatzea.

Ikastaroak kooperatibismoaren garrantzia islatzen du, aberastasun eta lana sortzeko iturri gisa.

Enpresaren alderdiak aztertu eta ebaluatu ahal izateko gaitasunak eskuratuko ditu partaideak, estrategia, finantza-ekonomia eta marketing ikuspuntutik, enpresa kooperatiboen garapen hobeagorako.

Ikastaro hau, enpresa kooperatiben kudeatzaile eta arduradunei zuzenduta dago.

Ikastaroan jarraituko den metodologia, aurrez-aurreko eskolak izango dira eta kasu eta ariketa praktikoekin konbinatuko dira.

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Kooperatiboen Kudeaketan Ikastaro Aurreratua egin izana egiaztatzen duen diploma jasoko da bukaeran.

Ikastaroak 160 ordutako iraupena du, 2009ko otsailaren 16an hasi da eta ekainaren 24an bukatuko da.

Ikastaroaren ordutegia, astelehen eta asteazkenetan 15:00etatik 19:00etara da Enpresa Zientzien Fakultatean.

[Ikastaroari buruzko informazio gehiago](#)

